

ARGAZKI BILDUMA ELGOIBAR

ARGAZKIAK **JABI LEON**

Ehun urte koplatan eta eskean

Santa Eskeko Etxegiña Taldeak bere mendeurrenako irteera egin zuen atzo Elgoibarko kale eta auzoetan zehar. Egun berezia zela eta, Udalak errekonozimendua egin zion taldeari eta koruko kideek udaletxe barruan abestu zuten, lehen aldiz



Ohitura dutenez, Santa Eskeko Etxegiña taldera batu ziren herritarrek argazkia atera zuten atzo goizean parrokiako atarian, herrian zehar koplak kantatu eta Caritasera bideratuko duten dirua batzeari ekin aurretik.



Taldeak Bolatokiko parkean hasi zuen ibilbidea, euripean eta German Uriguen 'Etxegiña'-ri eskainitako eskultura ondoan.



Etxegiñako kide eta kolaboratzaile beteteranoek taldearen errekonozimendua jaso zuten; eta taldeak Udalarena.



Mendeurrena zela eta, Etxegiña taldea udaletxe barruan aritu zen koplatan, estrainekez, udal ordezkarien aurrean.



Etxegiña taldearen mendeurrenako liburua eta erakusketa aurkeztu zituzten ostiral arratsaldean Kultur Etxean.

**Funeraria
Música**
Funeuskadi 

Elgoibarren zerbitzu integrala eskeintzen duen ehoretxe bakarra: beilatokia eta errausketa-labea leku berean duena.

Única funeraria que ofrece un servicio integral en Elgoibar: tanatorio y crematorio en el mismo lugar.



Elgobarko bulego berria
Nueva oficina de Elgoibar

Bernardo Ezenarro, 15
T. 943 747 386



Xilion, 3
(Polígono SIGMA Industrialdea)